

Hartzkume

Kattalin Sallaberry-k kontatua

Hartz batek emazte gazte bat bahitu zuen eta harpe batean sartu. Preso zelarik seme bat sortu zitzaion. Muttikoak bost urte ukan zuelarik, honela galdegin zion amari :

-Zergatik ez gira ateratzen ahal ?

-Harri lodi batek sarrera tapatzen duelako eta preso girelako.

-Beraz kenduko dut.

-Bai eta hartzak harrapatzen bagaitu?

-Ez zaitezela izi: nik garbituko dut.

Amak saiatzen utzi zuen. Harria hartu zuen, altxatu eta atera zen.

Hartza hor zegoen, haren beha. Mutikoak harria gainera bota zion eta hartza tanpez hil zen. Ama herrira ereman zuen. Bataiatua izan zen eta Xan izena eman zioten. Eskolan bere indar ikaragarriak errieta iziarazten zuen eta hunek amari galdegin zion ez zezan gehiago eskolara igor, beldur baitzen kexu aldi batez sarraski bat egin zezan.

Xanek amari iragarri zion:

-Munduan gaindi ibili nahi dut bainan hamasei kintaleko mailu bat behar dut.

Amak eginarazi zuen. Harri bat ukaldi batez arraildu zuen eta erran:

-Mailu ona da hau. Eta abiatu zen.

Gizon bat gurutzatu zuen. Eliza baten gainean erortzekotan zen harkaitz bat atxikitzen zuen.

-Zenbat ordaintzen zaituzte ? galdegin zion.

-Bederatzi zilarrezko txanpon.

-Zato enekin, hamar emanen dizkizut.

Gizonak onartu zuen.

Urruntxago beste gizon batekin topo egin zuten. Hunek mendi bat ordokitu nahi zuen...bere ipurdiarekin.

-Zenbat irabazten duzu?

-Hamar zilarrezko txanpon.

-Gurekin jiten bazara, hamaika emanen dizkizugu.

Gizona haiekin joan zen.

Hiruak osin sakon bat zegoen leize batera iritsi ziren. Zolan zer ote bazen jakin nahian, baño soka bati estekatu zuten. Xilintxa batek lanjerra seinlatu behar zuen. Sartu bezain fite xilintxa joiten hasi zen. Berehala gizona iganarazi zuten.

-Zer gertatzen da?

-Fitsik ez bainan ez naiz barnago sartzen ahal!

Xanek erran zuen:

-Beraz ni joanen naiz! Xilintxa gehiago joiten badu barnago jautsiko nauzue.

Osinean sartu zen. Ate bat atzeman zuen. Nehork ez baitzion ihardesten bere mailuaz jo zuen.

Purruskatu zuen. Neska gazte bat agertu zitzaion.

-Zertara etorria zara?

-Ba, jakin minez!

-Beraz eskapa zaitetz! Deabruak lo dira bainan iratzarriko direlarik hilen zaituzte.

-Ez naiz nehorren beldur.

Neskak orduan abisatu zuen ezpataz desafiatzen bazuten, hautua emanen ziotela ezpata ederren eta ezpata erdoilduen artean. Ezpata erdoilduak hautatu beharko zituela besteek ez baitzuten tutik balio.

Erran bezala deabru bat agertu zen:

-Nahi duzuia ezpataz borroka gaitezen?

-Ah bai, nahi duzun bezala.

-Zure arma hauta ezazu.

Xanek ezpata erdoildu bat hartu zuen. Borroka laburra izan zen; deabruari beharri bat moztu zion eta zakuan sartu zuen. Etsaia eskapatu zen.

Xanek neska gazteari elgarrekin eskapa zitezen proposatu zion bainan osinaren hegira iritsi zirelarik, soka desagertua zen bi lagunek lekuak hustuak baitzituzten.

Orduan mutikoak deabruaren beharria ausiki zuen eta hau tanpez berriz agertu zen oiher eginez :

-Aiaiai ! Zer nahi duzu ?

-Hemendik atera nahi dugu! Ene mailua beherean gelditua da. Ekar iezadazu!

Deabruak mutikoak eskatua egin zuen. Azkenean Xan neska gaztearekin herrira itzuli ziren.

Noizbait galdegin zion:

-Zergatik osin hortan bizi zinen?

-Egun batez, komuniatu ondoan, ostia ahoan atxiki nuen kalostraperaino eta han tu egin nuen. Horregatik zigortua izan naiz.

Xanek erran zion:

-Kalostrapeko lauza handiaren azpian apo gizen bat atzemanen duzu. Haren ahoan tu egin duzuna atzemanen duzu. Harrazu eta irents ezazu.

Mutikoaren erranak segitu zituen. Berantxago bi gazteak elgarrekin ezkondu ziren. Orduan jakin genuen errege baten alaba zela.